

GOIERRITARROK ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE

Hemen bildu garenok, eguneroko itxituretatik irten eta langa pasatzeko erabaki sakona hartu dugu. Txindokiren magaleraino heldu nahi dugu elkarrekin; Larraitz topaleku izan dadin. Litekeena da Igartzan elkartu garenok Euskal Herriarentzat proiektu, egitura nahiz etorkizun ezberdinak nahi izatea. Baina demokrazian oinarritutako printzipio baten aldeko jarrerak ekarri gaitu hona, **giza eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatuz, autodeterminazioaren edo erabakitze eskubidearen aldekoak**, hain zuzen ere.

Mezu hau gizarteratzea, **joera eta ideologia ezberdinekook elkarrekin egin beharreko bidea dela uste dugu**, harik eta bide horrek erabakitze eskubidearen bidegurutzeraino eramaten gaituen arte, behintzat.

Horregatik guztiagatik, ondokoa aldarrikatzen dugu:

- **Euskal Herria nazio naturala da.**
- **Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze eskubidea du.**
- **Euskal herritarrok dugu autodeterminatzeko eskubidea.**
- **Eskubide demokratiko unibertsala denez, Euskal Herrian eta nazioartean eskubide horren eskaera egingo dugu.**

Hala zabaldu eta jakinarazten dugu, gaur, Beasaingo Igartzan, 2010eko maiatzaren 22an.